



[ZINEMATEKA]
classique=moderne

Zinematekaren historia berria II

Una nueva historia de la Zinemateka II

[2025] 14.01–10.04

Bilbao

INSTITUT
FRANÇAIS
BILBAO

bilbao museoa
Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Classique = Moderne

Zinematekaren historia berri bat II

Zinemarik onena pantaila handian eta jatorrizko bertsioan

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok *Classique = Moderne* zikloaren bigarren zatia programatu du, Zinematekak Bilbon egindako 40 urteen omenez. Zikloa serie gisa antolatu da, 3 urtez, 2024, 2025 eta 2026an, hastapenetan gune honen programatzailea izan zen José Julián Baquedanorekin batera aukeratutako 45 filmekin. Ezinbesteko filmak dira, zinemaren historian duten garrantziagatik.

Era berean, ziklo honek euskarri analogikoak duen balioari heldu dio berriz, zeluloideko proiektzioak eta formatu digitalekoak uztartuz. Ez dago ezer modernoagorik eta egungoagorik, kontuan izanik zinemagile garaikide askok hori hautatzen dutela beren ekoizpenetan, emaitza naturalagoak lortu nahian.

Bilboko Zinemateka 1983ko urtarrilean jarri zen abian Bilboko Arte Ederren Museoa. Kultura zinematografiko klasiko eta garaikidea zabaltzeko asmoz sortu zen, film ezezagunak edo publikoak eskuratzeko errazak ez zirenak erakutsiz. Beti jatorrizko bertsioan, interpretazioan ahotsak duen garrantzia balioesteko.

2011n, inauguratu berriko Alhóndiga Bilbaoren parte bihurtu zen Zinemateka, eta Golem Alhóndiga operadorearekin lankidetzan, hiriko ikus-entzunezko eskaintza egonkorra eskaintzen hasi zen. Horrela, etapa berri bat hasi zen, Bilboko Arte Ederren Museoa ordura arte egindako lan guztiari jarraipena emateko.

Orduetik eskainitako filmen zerrenda ia amaigabea da. Azken 13 urteetan bakarrik,

70 ziklo baino gehiago programatu dira, eta 80.000 ikusle izan dira. Azpimarratzekoak dira nahitaezko zinemagile batzuen filmografia aztertzerako eskainitako zikloak: John Ford, Stanley Kubrick Orson Welles, François Truffaut eta Akira Kurosawa. Bestalde, programazioa lagungarria izan da zinema-sorkuntzaren kontzeptu teorikoak eta estetikoak eta zinemaren lanbideak ezagutzera emateko.

Azkuna Zentroan, Zinematekak zabaldu du sorkuntza garaikide eta hurbilei egindako begirada, mugimenduan dauden irudiak lantzen dituzten programa korralagoekin. *Egin salto! Ikus-entzunezkoen beste mapa bat* eta *Aldaketaren ahotsa. Emakumeek zuzendutako zinema* horren adibide batzuk baino ez dira. Monografikoen programazioan, bereziki nabarmentzen dira Dorothy Arzner, Christine Bachon, Iciar Bollain eta Isabel Coixet errealizadoreen atzera begirakoak.

Zinemateka zabalik dago Zentroko gainerako programazioari, eta hainbat hitzordutan hartzen du parte, besteak beste, Gutun Zuria Bilbao, Azkuna Zentroko Letren Nazioarteko Jaialdian, eta Itziar Barrio artistaren *By all means* eta zinema esperimentalaren sustatzaile Bruce Baillieren inguruko *Somewhere From Here To Heaven* erakusketetan.

Classique = Moderne. Zinematekaren historia berri bat inflexio-puntua da, garai guztietako zinemarik onena pantaila handian eta jatorrizko bertsioan eskaintzen jarraituko duen ibilbidean.

Klasiko garaikideak

José Julián Baquedano

Jean-Lluc Godard-en *Bande à parte* (1964) filmetik hartutako *Classique* = moderne adierazpenak bi termino hurbiltzen ditu, antagoniko gisa erabili ohi direnak eta zinema arte gisa duen paradigma osatzen dutenak. Gaur egun klasikotzat jotzen dena garaikidea izan zen bere garaian, baita disruptorea ere, eta bidea ireki zion gaur egungo ekoizpenari, teknikaren, pertsonaien edo kontatutako istorioaren bidez. Era berean, berria den guztia automatikoki bilakatzen da tradizional, sorkuntza artistiko gisa hondarra uzten duen heinean.

Irizpide hori kontuan hartuta, *Classique* = *moderne*. *Zinematekaren historia berri bat* zikloaren bigarren kapitulu honetan, zinema-ekoizpeneko maisulan batzuk izango ditugu ikusgai.

Japoniako zinemako bi maisu eztabaidaezinen lanik bikainenekin hasiko gara: Kenji Mizoguchiren *Ugetsu monogatari* (*Ilargi zurbilaren ipuinak*) eta Yasujiro Ozu-ren *Tokyo monogatari* (*Tokioko ipuinak*). 1953ko bi film dira, oso lirikoak, baina guztiz estilo desberdinetakoak, Japonian eszenaratzeko prozesuan izandako joera desberdinen erakusgarri.

Jarraian, *Pickpocket* (1959) izango dugu, Robert Bresson-en erreferentziatzeko lana. *Nouvelle Vague*-n eragin handia izan zuen, eta Paul Schrader zuzendariak sarritan omendu zuen.

Gero, *The Apartment* (1960) izango dugu, Billy Wilder-en filmik ospetsuena eta Oscar gehien lortu zuena. Komedia itxurako melodrama honetan, Alexandre Trauner-en dekoratuek era ikusgarrian distiratsen dute.

Komedia gisa ere, *Plácido* (1961) aurkeztuko dugu, seguruena Luis García Berlangaren filmik onena, Espainiako gizarteaz zuen ikuspegi korrosiboarekin eta sekuentzia-planoaren eredu gorena.

Bigarren kapitulu honetan, ezin bazter utzi

Luis Buñuelen zinema. Ziklo honetan, *Los olvidados* (1950) ikusiko dugu. Mexikar garaiko bere filmik onenetako bat.

Estatu Batuetako zinemak bitxi bat oparituko digu: *His Girl Friday* (*Ilargi berria*) (1940), Howard Hawks-en komedia. “Estilorik gabeko bere estilo” horrekin, barre egin eta gogoeta eragiten digu aldi berean. Eta malenkoniak negar eta barre egin nahi izanez gero, ez izan zalantzarik, ikusi Federico Fellini handiaren *Amarcord* (1973) testamentu-filma. Bertan, bere haurtzarora eta gaztarora erretratatzeko modu autobiografikoan.

François Truffaut zinegile eta kritikariak, *Nouvelle Vague*-ren ordezkariak garrantzitsuenetako bat denak, *Jules et Jim* (1962) eskainiko digu, bere bigarren film luzea. Jeanne Moreau-rekin izandako maitasun-istorio eder eta tragikoa, idazle baten memoria autobiografikoetan oinarritua.

S. M. Eisenstein sobietarrarekin zinema eszenaratzeko beste modu batera hurbilduko gara. *Oktyabr* (1927) lanean, bere muntaketa dialektikoaren praxia dugu ikusgai.

Othello (1951) da Orson Welles-en hamalau film bukatuetako bat. Aukera emango digu Wellesek muntaketan zuen maisutasunaz gozatzeko, William Shakespeareren obraz egin zuen egokitzapen indartsuarekin, antzerki-jatorria nabarmendu gabe, eta Alexandre Trauner-en zuzendaritza artistiko bikainarekin.

Oroitzapenezko ziklo honen bigarren kapitulua amaitzeko, Buster Keaton handiaren *The General* (1926) proiektatuko dugu, zinemako klasiko bat baino kontu modernoagorik ez dagoela erakusten duen lana. Gaur egun bere filmek indarrean jarraitzen dute, barre eragiten digute, hunkitu egiten gaituzte eta pentsarazten digute, duela mende bat bezalaxe.

Classique = Moderne

Una nueva historia de la Zinemateka II

El mejor cine en pantalla grande y en versión original

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao programa la segunda parte de *Classique = Moderne* en homenaje a los 40 años de la Zinemateka en Bilbao. El ciclo se articula a modo de serie, durante 3 años: 2024, 2025 y 2026 con 45 películas elegidas junto a José Julián Baquedano, quien fuera programador de este espacio en sus inicios. Se trata de filmes imprescindibles por su trascendencia en la historia del cine.

Este ciclo retoma así mismo el valor del soporte analógico, combinando las proyecciones en celuloide con el formato digital. Nada más moderno y actual, teniendo en cuenta que es el elegido por muchas y muchos cineastas contemporáneos en sus producciones, buscando resultados más naturales.

La Zinemateka de Bilbao iniciaba su andadura en enero de 1983 en el Museo de Bellas Artes de Bilbao. Nació con el propósito de difundir la cultura cinematográfica clásica y contemporánea a través de la divulgación de películas desconocidas o de difícil acceso para el público. Y siempre en versión original, poniendo el valor a la importancia de la voz en la interpretación.

En 2011, la Zinemateka pasa a formar parte de la recién inaugurada Alhóndiga Bilbao que, en colaboración con el operador Golem Alhóndiga, aúna la oferta audiovisual estable de la ciudad. Se abre así una nueva etapa que otorga continuidad a todo el trabajo realizado hasta ese momento en el Museo de Bellas Artes de Bilbao.

Desde entonces, la lista de películas es casi interminable. Solo en los últimos 13 años, se han programado más de 70 ciclos a los

que han asistido casi 80.000 espectadoras y espectadores. Destacan los dedicados a repasar la filmografía de cineastas imprescindibles: desde John Ford a Stanley Kubrick pasando por Orson Welles, François Truffaut o Akira Kurosawa. La programación ha contribuido así mismo a divulgar conceptos teóricos y estéticos de la creación cinematográfica y los oficios del cine.

En Azkuna Zentroa, la Zinemateka ha ampliado su mirada a creaciones contemporáneas y cercanas, con programas más corales que trabajan las imágenes en movimiento. *Egin salto! Otro mapa del audiovisual* o *La voz del cambio. Cine dirigido por mujeres*, son solo algunos ejemplos de ello. En la programación de monográficos destacan las retrospectivas de realizadoras como Dorothy Arzner, Christine Bachon, Iciar Bollain o Isabel Coixet.

La Zinemateka es también permeable al resto de la programación del Centro, formando parte de citas como Gutun Zuria Bilbao, el Festival Internacional de las Letras de Azkuna Zentroa; o exposiciones como *By all means* de la artista Itziar Barrio, y *Somewhere From Here To Heaven*, en torno a la figura de Bruce Baillie, promotor del cine experimental.

Classique = Moderne. Una nueva historia de la Zinemateka es el punto de inflexión esta larga trayectoria que continuará ofreciendo lo mejor del cine de todos los tiempos en pantalla grande y en versión original.

Clásicos contemporáneos

José Julián Baquedano

La expresión *Classique = moderne*, tomada de la película *Bande à parte* (1964) de Jean-Luc Godard, acerca dos términos que tienden a usarse como antagónicos y conforman el paradigma del cine como arte, lo que hoy se considera clásico fue en su momento contemporáneo, incluso disruptor, abriendo camino a la producción actual a través de la técnica, los personajes o la historia que cuenta. De la misma manera, todo lo nuevo se convierte automáticamente en tradicional en tanto que deja un poso como creación artística.

Atendiendo a este criterio, en este segundo capítulo de *Classique = moderne. Una nueva historia de la Zinemateka*, podemos visionar algunas obras maestras de la producción cinematográfica.

Comenzamos con los trabajos más sobresalientes de dos maestros indiscutibles del cine japonés: Kenji Mizoguchi con *Ugetsu monogatari* (*Cuentos de la luna pálida*) y Yasujiro Ozu con *Tokyo monogatari* (*Cuentos de Tokio*). Dos películas de 1953, muy líricas, pero con estilos muy diferentes, que muestran las diversas tendencias de la puesta en escena desarrollada en Japón.

A continuación tenemos *Pickpocket* (1959), obra de referencia de Robert Bresson. Un filme muy influyente en la Nouvelle Vague y frecuentemente homenajeado por el director Paul Schrader. Seguimos con *The Apartment* (1960), la oscarizada y más famosa película de Billy Wilder. Un melodrama en forma de comedia en el que brillan de manera espectacular los decorados de Alexandre Trauner.

También en clave de comedia presentamos *Plácido* (1961), seguramente la mejor película de Luis García Berlanga, con su corrosiva

visión de la sociedad española y ejemplo supremo de plano secuencia.

En este segundo capítulo no podía faltar el cine de Luis Buñuel. En este ciclo veremos *Los olvidados* (1950), una de sus mejores películas de la época mejicana.

El cine americano nos regala una joya: *His Girl Friday* (*Luna nueva*) (1940), comedia de Howard Hawks con su incondicional “estilo sin estilo” que nos hace reír y reflexionar a la vez. Y, si quieren llorar y reír con melancolía, no duden en visionar el filme-testamento *Amarcord* (1973), del gran Federico Fellini.

El cineasta y crítico François Truffaut nos ofrece en *Jules et Jim* (1962), su segundo largometraje, una bella y trágica historia de amor con Jeanne Moreau, basada en las memorias autobiográficas de un escritor.

Con el soviético S. M. Eisenstein nos acercamos a otra manera de entender la puesta en escena cinematográfica. En *Oktyabr* (1927) podemos ver que su praxis del montaje dialéctico es una orcina de la revolución llena de fuerza y coraje.

Othello (1951), una de las catorce películas acabadas de Orson Welles, nos permite disfrutar de su maestría con el montaje, la adaptación con fuerza de la obra de William Shakespeare sin que se note su origen teatral, y la gran dirección artística de Alexandre Trauner.

Cerramos el segundo capítulo de este ciclo conmemorativo con *The General* (1926) del gran Buster Keaton, todo un ejemplo de que no hay nada más moderno que un clásico de cine. Hoy sus películas siguen vigentes, nos hacen reír, nos emocionan y nos hacen pensar, igual que hace un siglo.

AGENDA

EGUNA / DÍA	🕒	FILMA / PELÍCULA
14 URTARRILA, ASTEARTEA ENERO, MARTES	17:00	<i>Ugetsu monogatari (Cuentos de la luna pálida)</i> (1953) Z/D: Kenji Mizoguchi 97' Aurkezpena / Presenta: José Julián Baquedano
16 URTARRILA, OSTEGUNA ENERO, JUEVES	19:00	<i>Ugetsu monogatari (Cuentos de la luna pálida)</i> (1953) Z/D: Kenji Mizoguchi 97' Aurkezpena / Presenta: José Julián Baquedano
21 URTARRILA, ASTEARTEA ENERO, MARTES	17:00	<i>Tokyo monogatari (Cuentos de Tokio)</i> (1953) Z/D: Yasujiro Ozu 139'
23 URTARRILA, OSTEGUNA ENERO, JUEVES	19:00	<i>Tokyo monogatari (Cuentos de Tokio)</i> (1953) Z/D: Yasujiro Ozu 139'
28 URTARRILA, ASTEARTEA ENERO, MARTES	17:00	<i>Pickpocket</i> (1959) Z/D: Robert Bresson 75'
30 URTARRILA, OSTEGUNA ENERO, JUEVES	19:00	<i>Pickpocket</i> (1959) Z/D: Robert Bresson 75'
4 OTSAILA, ASTEARTEA FEBRERO, MARTES	17:00	<i>The Apartment</i> (1960) Z/D: Billy Wilder 125'
6 OTSAILA, OSTEGUNA FEBRERO, JUEVES	19:00	<i>The Apartment</i> (1960) Z/D: Billy Wilder 125'
11 OTSAILA, ASTEARTEA FEBRERO, MARTES	17:00	<i>Plácido</i> (1961) Z/D: Luis García Berlanga 85'
13 OTSAILA, OSTEGUNA FEBRERO, JUEVES	19:00	<i>Plácido</i> (1961) Z/D: Luis García Berlanga 85'
18 OTSAILA, ASTEARTEA FEBRERO, MARTES	17:00	<i>Los olvidados</i> (1950) Z/D: Luis Buñuel 88'
20 OTSAILA, OSTEGUNA FEBRERO, JUEVES	19:00	<i>Los olvidados</i> (1950) Z/D: Luis Buñuel 88'
4 MARTXOA, ASTEARTEA MARZO, MARTES	17:00	<i>His Girl Friday (Luna nueva)</i> (1940) Z/D: Howard Hawks 92'
6 MARTXOA, OSTEGUNA MARZO, JUEVES	19:00	<i>His Girl Friday (Luna nueva)</i> (1940) Z/D: Howard Hawks 92'
11 MARTXOA, ASTEARTEA MARZO, MARTES	17:00	<i>Amarcord</i> (1973) Z/D: Federico Fellini 127'
13 MARTXOA, OSTEGUNA MARZO, JUEVES	19:00	<i>Amarcord</i> (1973) Z/D: Federico Fellini 127'

EGUNA / DÍA	🕒	FILMA / PELÍCULA
18 MARTXOA, ASTEARTEA MARZO, MARTES	17:00	<i>Jules et Jim</i> (1962) Z/D: François Truffaut 104'
20 MARTXOA, OSTEGUNA MARZO, JUEVES	19:00	<i>Jules et Jim</i> (1962) Z/D: François Truffaut 104'
25 MARTXOA, ASTEARTEA MARZO, MARTES	17:00	<i>Oktyabr (October)</i> (1927) Z/D: Sergei M. Eisenstein, Grigori Aleksandrov 100'
27 MARTXOA, OSTEGUNA MARZO, JUEVES	19:00	<i>Oktyabr (October)</i> (1927) Z/D: Sergei M. Eisenstein, Grigori Aleksandrov 100'
1 APIRILA, ASTEARTEA ABRIL, MARTES	17:00	<i>Othello</i> (1951) / Z/D: Orson Welles 91' Aurkezpena / Presenta: José Julián Baquedano
3 APIRILA, OSTEGUNA ABRIL, JUEVES	19:00	<i>Othello</i> (1951) / Z/D: Orson Welles 91' Aurkezpena / Presenta: José Julián Baquedano
8 APIRILA, ASTEARTEA ABRIL, MARTES	17:00	<i>The General</i> (1926) Z/D: Buster Keaton, Clyde Bruckman 74'
10 APIRILA, OSTEGUNA ABRIL, JUEVES	19:00	<i>The General</i> (1926) Z/D: Buster Keaton, Clyde Bruckman 74'

Eta gainera Mediateka BBK-n...

Zinematekaren programazioa Mediateka BBKra zabalduko da, ziklo honetako filmenguz inguruan. Gainera, espazio horretan zinemagile frantziarraren filmak eta liburuak kontsultatu eta eskatu ahal dira.

Informazio gehiago 20. orrialdean.

Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegia eta golem.es
5€ (4€ AZ Txartelarekin)
Astearte, +65 urte: 2€ (leihatilan bakarrik salgai)

Y además en la Mediateka BBK...

La programación de la Zinematika se expande a la Mediateka BBK con actividades en torno a las películas de este ciclo. Además, en este espacio se pueden consultar y solicitar prestadas películas y libros relacionados con el programa. Más información en la página 20.

Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en golem.es
5€ (4€ con Tarjeta AZ)
Martes, + 65 años: 2€ (venta solo en taquilla)

+ info: azkunazentroa.eus



UGETSU MONOGATARI (Cuentos de la luna pálida) 1953



97' • DCP • JBGA / VOSE • Japonia / Japón
Z/D: Kenji Mizoguchi • G: Matsutarō Kawaguchi, Yoshikata Yoda
A/R: Masayuki Mori, Machiko Kyō, Kinuyo Tanaka

Generoa: drama

Japonia, XVI. mendea. Gerra zibilean, Genjuro eta Tobei nekazariak dirutza egin nahi dute: Genjurok, buzingile gisa, eta Tobeik, samurai gisa. Biek ala biek alde batera utziko dituzte emazteak, beren amets handinahiak betetzeko. Gerrako beste biktima bat den Lady Wakasa misteriozua Genjuroren bidean azalduko da.

Género: drama

Japón, siglo XVI. Durante la guerra civil, los aldeanos Genjuro y Tobei pretenden hacer fortuna: Genjuro como alfarero y Tobei como samurai. Ambos dejan a sus esposas abandonadas para cumplir con sus ambiciosos sueños. La misteriosa Lady Wakasa, otra víctima de la guerra se cruzará en el camino de Genjuro.

14 URTARRILA
ENERO

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

16 URTARRILA
ENERO

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

Aurkezpena / Presenta:
José Julián Baquedano

BA AL ZENEKIEN...

Film zoragarri eta eder honek zorionaren ezinezko bilaketa jorratzen du, Veneziako Urrezko Lehoia irabazi zuen 1953an, eta Oscar sarietarako izendatu zuten jantzirik onenaren atalean.

SABIÁS QUE...

Esta apasionante y bellísima película sobre la búsqueda imposible de la felicidad ganó el León de Oro de Venecia en 1953 y fue nominada al Oscar por mejor vestuario.

[TOKYO MONOGATARI (Cuentos de Tokio)] 1953



139' • DCP • JBGA / VOSE • Japonia / Japón
Z/D: Yasujirō Ozu • **G:** Yasujirō Ozu, Kogo Noda
A/R: Chishu Ryu, Chieko Higashiyama, Setsuko Hara

Generoa: drama

Bikote ezkondu zahar bat seme-alabak bisitatzera joan da Tokiora, baina haietako batek ere ez du astirik haietaz arduratzeko, eta bainuetxe batera bidaltzea erabakitzen dute. Bainuetxetik itzultzean, amak errain baten etxean ematen du gaua. Semeetako baten alarguna da erraina. Koinatuek ez bezala, Norikok estimua erakutsiko die aita-amaginarrebei, eta lasaitu egingo du emakume zaharra.

Género: drama

Una pareja de ancianos viaja a Tokio para visitar a sus hijos, pero ninguno de ellos tiene tiempo para atenderlos, por lo que deciden enviarlos a un balneario. Cuando regresan, la madre pasa una noche en la casa de una nuera, viuda de uno de sus hijos. A diferencia de sus cuñados, Noriko muestra afecto por sus suegros y conforta a la anciana.

21 URTARRILA
ENERO

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

23 URTARRILA
ENERO

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

BA AL ZENEKIEN...

Ranking guztien arabera filmik onenetako bat da *Tokyo monogatari*, eta, hari esker, Yasujirō Ozu zinemaren historiako zuzendaririk garrantzitsuenetako bat da.

SABIÁS QUE...

Considerada una de las mejores películas en todos los rankings, *Tokyo monogatari* convirtió a su director, Yasujirō Ozu, en uno de los más importantes de la historia del cine.



75' • DCP • JBGA / VOSE • Frantzia / Francia
Z/D: Robert Bresson • G: Robert Bresson • A/R: Martin LaSalle,
Marika Green, Jean Pélégri, Dolly Scal

Generoa: drama

Michel zorro-ebaslea da. Ez du premiagatik lapurtzen, ezta bizioz ere, eta ez da kleptomanoa. Bere buruari balioa emateko lapurtzen du, lapurreta baita sentimenduak adierazteko duen modua.

Género: drama

Michel es un carterista que no roba por necesidad como tampoco lo hace por vicio; no es cleptómano, roba para darse a sí mismo un valor, porque el robo es el medio de expresar sus sentimientos.

28 URTARRILA
ENERO

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

30 URTARRILA
ENERO

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

BA AL ZENEKIEN...

Film honen protagonista, Martin Lasalle, Jorge Oteiza eskultoreak aukeratu zuen *Acteón* film luzean protagonista izan zedin, zinema-zuzendari gisa bere debuta izango zen proiektu zapuztuan.

SABIÁS QUE...

El protagonista de esta película, Martin Lasalle, fue elegido por el escultor Jorge Oteiza para protagonizar su frustrado proyecto de largometraje *Acteón*, en lo que iba a ser su debut como director de cine.

[THE APARTMENT] 1960



125' • 35mm • JBGA / VOSE • Estatu Batuak / Estados Unidos
Z/D: Billy Wilder • G: Billy Wilder • A/R: Jack Lemmon, Shirley MacLaine,
Fred MacMurray, David Lewis

Generoa: komedia

C.C. Baxter (Jack Lemmon) Manhattaneko aseguru-konpainia bateko langile xume baina handinahi bat da. Ezkongabe dago, bakarrik bizi da apartamentu txiki batean, eta noizbehinka bere nagusiei uzten die amodio-hitzorduetarako. Espero du mesede horiek baliagarri izango zaizkiola enpresan duen posizioa hobetzeko. Baina igogailuzain batekin (Shirley MacLaine) maitemindu, eta egoera aldatu egiten da. Bere apartamentua erabiltzen duten nagusietako baten (Fred MacMurray) maitalea da igogailuzaina.

Género: comedia

C.C. Baxter (Jack Lemmon) es un modesto pero ambicioso empleado de una compañía de seguros de Manhattan. Está soltero y vive solo en un discreto apartamento que presta ocasionalmente a sus superiores para sus citas amorosas. Tiene la esperanza de que estos favores le sirvan para mejorar su posición en la empresa. Pero la situación cambia cuando se enamora de una ascensorista (Shirley MacLaine) que resulta ser la amante de uno de los jefes que usan su apartamento (Fred MacMurray).

4 OTSAILA
FEBRERO

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

6 OTSAILA
FEBRERO

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

BA AL ZENEKIEN...

Bill Wilder-en maisulan honek bost Oscar sari jaso zituen 1960an, film onena, zuzendaritza onena eta jatorrizko gidoi onena, besteak beste. Shirley MacLaine protagonistak emakumezko aktore onenaren saria irabazi zuen urte horrexetan Veneziaako Zinemaldian. Gainera, hiru Urrezko Globo eta hiru BAFTA sari jaso zituen.

SABÍAS QUE...

La obra maestra de Bill Wilder fue premiada en 1960 con cinco Óscar, incluyendo mejor película, mejor dirección y mejor guion original. Su protagonista, Shirley MacLaine, ganó el premio a mejor actriz en el Festival de Venecia de ese mismo año. Además, fue galardonada, entre otros, con tres Globos de Oro y tres premios BAFTA.



85' • DCP • JB / VO • España / España

Z/D: Luis García Berlanga • **G:** Rafael Azcona, Luis García Berlanga, José Luis Colina, José Luis Font • **A/R:** Cassen, José Luis López Vázquez, Amelia de la Torre, Mari Carmen Yepes, José María Caffarel, Manuel Alexandre, Elvira Quintillá, Amparo Soler Leal, Xan Das Bolas

Generoa: komedia

Probintzietako hiri txiki batean, burges alfer batzuei bururatzen zaie Gabonetako kanpaina bat antolatzea lelo honekin: "Eseri behartsu bat zure mahaian". Kontua da premia gehien dutenak Gabon gaueko afarian elkartzea familia aberatsekin, normalean ez dituzten beroaz eta maitasunaz goza ditzaten. Plácidori kontratua egin diote motogurdiarekin kabalkadan parte hartzeko, baina arazo baten ondorioz ezin du bere burua lanean bildu: egun horrexetan amaituko da ibilgailuaren lehen letra, eta horixe du, izan, bizibide bakarra.

Género: comedia

En una pequeña ciudad provinciana, a unas burguesas ociosas se les ocurre la idea de organizar una campaña navideña cuyo lema es: "Siente a un pobre a su mesa". Se trata de que los más necesitados compartan la cena de Nochebuena con familias acomodadas y disfruten del calor y el afecto que no tienen. Plácido ha sido contratado para participar con su motocarro en la cabalgata, pero surge un problema que le impide centrarse en su trabajo: ese mismo día vence la primera letra del vehículo, que es su único medio de vida.

11 OTSAILA
FEBRERO

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

13 OTSAILA
FEBRERO

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

BA AL ZENEKIEN...

1961ean, ingelesez besteko filmik onenaren Oscar sarirako izendatu zuten. *Plácido* kritika latza egiten dio "Eseri behartsu bat zure mahaian" kanpainari, zeina erregimen frankistak sustatu zuen, Gabonetan karitate kristauari dei eginez, 1950eko hamarkadan.

SABÍAS QUE...

Nominada en 1961 al Oscar a la mejor película de habla no inglesa, *Plácido* es una crítica feroz a la campaña "Siente a un pobre en su mesa", promovida en los años cincuenta por el régimen franquista apelando a la caridad cristiana en Navidad.

[LOS OLVIDADOS] 1950



88' • DCP • JB / VO • Mexiko / México

Z/D: Luis Buñuel • **G:** Luis Buñuel, Luis Alcoriza • **A/R:** Stella Inda, Miguel Inclán, Alfonso Mejía, Roberto Cobo, Alma Delia Fuentes, Francisco Jambrina

Generoa: drama

Jaibo nerabea, adingabeen zentro batetik ihes egin, eta auzoan elkartu da lagunekin. Egun batzuk geroago, Jaibok, Pedro laguna aurrean dela, erreformatoria bidaltzearen errua izan omen zuen mutikoa hiltzen du. Ordutik aurrera, Pedoren eta Jaiboren patuak lotuta egongo dira tragikoki.

Género: drama

El Jaibo es un adolescente que escapa de un correccional y se reúne en el barrio con sus amigos. Unos días después, el Jaibo mata, en presencia de su amigo Pedro, al muchacho que supuestamente tuvo la culpa de que lo enviaran al reformatorio. A partir de entonces, los destinos de Pedro y el Jaibo estarán trágicamente unidos.

18 OTSAILA
FEBRERO

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

20 OTSAILA
FEBRERO

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

BA AL ZENEKIEN...

Luis Buñuelen obra gailena eta Mexikon egindakoen artean garrantzitsuenetako bat da *Los olvidados*, eta bi amaiera ditu. Teruelgo zinemagilearen gustukoena, eta ezkorrena, eta bertsio baikorrena Oscar Dancigers ekoizlearen aginduz filmatu zen.

SABÍAS QUE...

Obra cumbre de Luis Buñuel y una de las más importantes de las realizadas en México, *Los olvidados* cuenta con dos finales. El preferido del cineasta turolense, y más pesimista, y una versión más feliz, rodada por orden del productor, Oscar Dancigers.

[HIS GIRL FRIDAY (Luna nueva)] 1940



92' • DCP • JBGA / VOSE • Estatu Batuak / Estados Unidos
Z/D: Howard Hawks • G: Charles Lederer. Remake: Ben Hecht,
Charles MacArthur • A/R: Cary Grant, Rosalind Russell, Ralph Bellamy,
Gene Lockhart

Generoa: erromantikoa

Hildy Johnsonek, Morning Post egunkariko erreportaririk onenak, iragarri du kazetaritza utziko duela ezkontzeko eta familia bat izateko. Baina Walter Burns, egunkariko editorea eta Hildyren senar ohia, ez dago hori onartzeko prest. Beraz, mota guztietako trikimailuak erabiliko ditu egunkarian atxikitzeko.

Género: romántico

Hildy Johnson, la mejor reportera del periódico Morning Post, anuncia que va a dejar el periodismo para casarse y fundar una familia. Pero Walter Burns, el editor del periódico y exmarido de Hildy, no está dispuesto a aceptarlo, por lo que se sirve de toda clase de tretas para retenerla en el periódico.

4 MARTXOA
MARZO

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

6 MARTXOA
MARZO

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

BA AL ZENEKIEN...

Howard Hawks-en komedia barregarri honek kazetaritzalari bidearen kritika latza du ezkutuan. Lewis Milestone-ren *The Front Page* (1931) lanaren egokitzapen bat da, zeinak 1974an Bill Wilder-en izenburu bereko *remake*-a sortu zuen.

SABIÁS QUE...

Esta hilarante comedia de Howard Hawks esconde una feroz crítica a la profesión periodística. Es una adaptación de *The Front Page* (1931) de Lewis Milestone que a su vez originó, en 1974, el *remake* de Bill Wilder con el mismo título.

[AMARCORD] 1973



127' • 35mm • JBGA / VOSE • Italia

Z/D: Federico Fellini • **G:** Tonino Guerra, Federico Fellini

A/R: Pupella Maggio, Armando Brancia, Magali Noël, Ciccio Ingrassia, Nando Orfei, Luigi Rossi, Bruno Zanin, Gianfilippo Carcano, Maria Antonietta Beluzzi.

Generoa: komedia

Italia, 1930eko hamarkada. Italiako iparraldeko herri bateko eguneroko bizitzaren kronika, faxismoaren garaian. Film luzeak Borgo fikziozko hirian bizi diren pertsonaia batzuen istorioa kontatzen du. Federico Felliniren jaioterria zen Rimini hirian oinarrituta dago, 1930eko hamarkadan, Italia faxistaren garaian.

Género: comedia

Italia, años 30. Crónica de la vida cotidiana en un pueblo del norte de Italia durante el fascismo. El largometraje cuenta la historia de algunos personajes que viven en la ficticia ciudad de Borgo, basada en la ciudad de Rimini, ciudad natal de Federico Fellini, durante el periodo de la Italia fascista en la década de 1930.

11 MARTXOA
MARZO

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

13 MARTXOA
MARZO

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

BA AL ZENEKIEN...

Federico Fellinik bost Oscar sari jaso zituen bere ibilbidean, eta horietako bat *Amarcord* lanarekin lortu zuen. 1974an atzerriko film onenaren saria irabazi zuen. Ekoizpen honetan aktoreen interpretazio bikainak nabarmentzen dira, batez ere profesionalak ez diren horienak.

SABÍAS QUE...

Amarcord le valió a Federico Fellini uno de los cinco Oscar que recibió a lo largo de su carrera. Ganadora del galardón a la mejor película extranjera en 1974, en esta producción destacan las excelentes interpretaciones actorales, especialmente de no profesionales.

[JULES ET JIM] 1962



104' • DCP • JBGA / VOSE • Frantzia / Francia

Z/D: François Truffaut • **G:** François Truffaut, Jean Gruault.

Nobela / Novela: Henri Pierre Roché • **A/R:** Jeanne Moreau, Oskar Werner, Henri Serre

Generoa: erromantikoa

1912an elkar ezagutu zutenetik, Jules (Oskar Werner) eta Jim (Henri Serre) lagun banaezinak egin dira, hainbesterako non emakume berarekin (Jeanne Moreau) maitemindu dira. Haietako bat berarekin ezkonduko da. Hirurogeiko hamarkadako zinema frantsesaren obra adierazgarri hau maitasunari eta pasioari egindako kantu bat da.

Género: romántico

Desde que se conocieron en 1912, Jules (Oskar Werner) y Jim (Henri Serre) se hicieron amigos tan inseparables que se enamoraron de la misma mujer (Jeanne Moreau). Uno de ellos se casa con ella. Obra muy representativa del cine francés de los sesenta, que constituye un canto al amor y la pasión.

18 MARTXOA
MARZO

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

20 MARTXOA
MARZO

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

BA AL ZENEKIEN...

Truffaut-en bigarren film luze honek *-Les Quatre Cents Coups* (1959) lanaren ondorengo-, Henri Pierre Roché-ren eleberri autobiografiko batean oinarritutako maitasun-triangelu bat kontatzen du. 1962an bi BAFTA sari eskuratu zituen: atzerriko filmik onenarena eta interpretaziorik onenarena (Jeanne Moreau).

SABIÁS QUE...

El segundo largo de Truffaut, después de *Les Quatre Cents Coups* (1959), narra un triángulo amoroso basado en una novela autobiográfica de Henri Pierre Roché. En 1962 obtuvo dos Premios BAFTA: a la mejor película e interpretación extranjera (Jeanne Moreau).



100' • DCP • JBGA / VOSE • Sobietar Batasuna / Unión Soviética

Z/D: Sergei M. Eisenstein, Grigori Aleksandrov

G: Sergei M. Eisenstein, Grigori Aleksandrov. Liburua / Libro: John Reed

A/R: Nikolái Popov, Vasili Nikándrov, Liashenko

Generoa: drama

1917ko otsaila eta urria bitartean izandako gertaerak berreraikitzen ditu. Filosofia komunistari jarraiki, filmean ez dago pertsonaia nagusirik. Eisensteinen trebetasuna eta esperientzia nabariak dira mugimendu azkarretan eta muntaketaren erritmoan, baita sekuentzia bizien eraikuntzan ere, erriusar belaualdi goiztiarrek ondo ulertu ez bazituzten ere. Estreinaldia 1928ra arte atzeratu zuten, eragin handiko talde batzuen presioaren ondorioz, eta, gainera, eszena batzuk moztu zituzten.

Género: drama

Reconstrucción de los acontecimientos ocurridos entre febrero y octubre de 1917. Una película en la que, siguiendo la filosofía comunista, no había personajes principales. La habilidad de Eisenstein y su experiencia se ve en los rápidos movimientos y en el ritmo en el montaje, así como en la construcción de intensas secuencias que no fueron bien entendidas por las tempranas generaciones rusas. El estreno se retrasó hasta 1928 debido a la presión de algunos grupos influyentes y, además, se cortaron algunas escenas.

25 MARTXOA
MARZO

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

27 MARTXOA
MARZO

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

BA AL ZENEKIEN...

Materialismo dialektikoaren printzipioen arabera egindako film honetan, Eisensteinek "atrakzioen muntaketaren" teoria gauzatu zuen. Sorkuntza zinematografiko intelektualaren mota honek sekuentziak eta irudiak bateratzen ditu ikusleengan emozioak sortzeko.

SABÍAS QUE...

Rodada según los principios del materialismo dialéctico, Eisenstein vuelca en esta película su teoría de "montaje de atracciones". Un tipo de creación cinematográfica intelectual que se vale de la unión de secuencias e imágenes para generar emociones en las personas espectadoras.

OTHELLO 1951



91' • DCP • JBGA / VOSE • Maroko / Marruecos
Z/D: Orson Welles • **G:** Orson Welles. Antzerkia / Teatro: William Shakespeare • **A/R:** Orson Welles, Micheál MacLiammóir, Suzanne Cloutier, Robert Coote

Generoa: drama

William Shakespeareren jelsiari buruzko testu hilezkorra, Orson Wellesen arabera egina.

Género: drama

El inmortal texto de William Shakespeare sobre los celos, según Orson Welles.

1 APIRILA
ABRIL

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

3 APIRILA
ABRIL

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

Aurkezpena / Presenta:
José Julián Baquedano

BA AL ZENEKIEN...

Muntaketaren maisulan hau Maroko ekoitzi zuen Orson Wellesek berak, besteak beste, Frantziaren finantziazioa galdu eta italiar ekoiztetxeak porrot egin ondoren. Gorabehera horien guztien berri eman zuen zinemagileak bere azken lanetako bat izan zen *Filming Othello* (1978) dokumentalean.

SABÍAS QUE...

Esta obra maestra del montaje fue producida en Marruecos por el propio Orson Welles tras perder la financiación francesa y entrar en bancarrota su productora italiana, entre otras vicisitudes. De todas ellas da cuenta el cineasta en el documental *Filming Othello* (1978), uno de sus últimos trabajos.

[THE GENERAL] 1926



74' • DCP • JBGA / VOSE • Estatu Batuak / Estados Unidos
Z/D: Buster Keaton, Clyde Bruckman • **G:** Buster Keaton,
Clyde Bruckman • **A/R:** Buster Keaton, Marion Mack

Generoa: komedia

Johnny Gray (Buster Keaton) tren-gidaria da AEBko hegoaldeko estatu batean, eta bi amodio handi ditu: neska bat (Anabelle Lee) eta lokomotora bat (General-a). 1861ean Ondorengotza Gerra lehertzen denean, Johnnyk armadarako izena eman nahi du, baina armadan erabakitzen dute lan hobea egingo duela atzeguardian. Hala ere, Anabellek utzi egiten du, koldarra delakoan. Konfederatuen artean infiltratutako ipartar komando batek "General-a" lapurtu, eta Anabelle bahitzen duenean izango du aukera makinistak bere benetako balioa erakusteko. Zalantza izpirik izan gabe, Johnny beste lokomotora batera igoko da, eta yankien atzetik abiatuko da bere bi maiteak berreskuratuzera.

Género: comedia

Johnny Gray (Buster Keaton) es maquinista en un estado del Sur y tiene dos grandes amores: una chica (Anabelle Lee) y una locomotora (La General). En 1861, al estallar la Guerra de Secesión, Johnny intenta alistarse, pero el ejército considera que será más útil trabajando en la retaguardia. Sin embargo, Anabelle cree que es un cobarde y lo rechaza. El maquinista sólo podrá demostrar su auténtico valor cuando un comando nordista infiltrado en las líneas confederadas le robe "La General" y rapte a Anabelle. Johnny no dudará un segundo en subirse a otra locomotora y perseguir a los yanquis para recuperar a sus dos amadas.

8 AHIRILA
ABRIL

ASTEARTEA / MARTES • 17:00

10 AHIRILA
ABRIL

OSTEGUNA / JUEVES • 19:00

BA AL ZENEKIEN...

Buster Keaton izan zen surrealistek eta 1927ko belaunaldiak gustukoan izan zuten komikoa, sentimentaltzat jotzen zuten Chaplinen aurrean. 1989tik aurrera, *General-aren makinista* National Film Registry-n, Estatu Batuetako Kongresuko Liburutegian, zainduta dago, bere esanahi kultural, historiko eta estetikoagatik.

SABÍAS QUE...

Buster Keaton fue el cómico preferido por los surrealistas y la generación del 27 frente a Chaplin al que le consideraban un sentimental. Desde 1989 *El Maquinista de la General* está preservada en el National Film Registry, en la Biblioteca del Congreso de los Estados Unidos, por su significación cultural, histórica y estética.

MEDIATEKA BBK

Zinematekaren programazioa Mediateka BBKra zabalduko da, ziklo honetako filmen inguruan. Gainera, espazio horretan zinemagile frantziarraren filmak eta liburuak kontsultatu eta eskatu ahal dira.

La programación de la Zinemateka se expande a la Mediateka BBK con actividades en torno a las películas de este ciclo. Además, en este espacio se pueden consultar y solicitar prestadas películas y libros relacionados con el programa.

Zinemako elkarrizketak. Argiak, kamera, akzioa! Diálogos de cine. Luces, cámara ¡acción!

Classique = Moderne: Zinematekaren historia berri bat II zikloaren barruan, saioak **Howard Hawks** zuzendari eta gidoiari estatubatuarra du ardatz, *His Girl Friday* (1940) lanarekin. Komedia barregarri honek kazetaritza-lanbidearen kritika latza du ezkutuan. **Lewis Milestone**-ren *The Front Page* (1931) lanaren egokitzapen bat da, zeinak 1974an **Bill Wilder**-en izenburu bereko remake-a sortu zuen.

En el marco del ciclo *Classique = Moderne: una nueva historia de la Zinemateka II*, la sesión se centra en la figura del director y guionista estadounidense **Howard Hawks** a través de *His Girl Friday* (*Luna nueva*) (1940). Esta hilarante comedia esconde una feroz crítica a la profesión periodística. Es una adaptación de *The Front Page* (1931) de **Lewis Milestone** que a su vez originó, en 1974, el remake de **Bill Wilder** con el mismo título.

Otsailak 18, asteartea / Martes, 18 de febrero
18:30 / 60'. Mediateka BBK: TK101

Filmografia Filmografía

Mediateka BBKko katalogoan aurki daitezkeen filmen aukeraketa bat

Una selección de las películas que se pueden encontrar en el catálogo de la Mediateka BBK.

- *Ugetsu monogatari* (*Cuentos de la luna pálida*) (1953)
- *Tokyo monogatari* (*Cuentos de Tokio*) (1953)
- *Pickpocket* (1959)
- *The Apartment* (1960)
- *Plácido* (1961)
- *Los olvidados* (1950)
- *His Girl Friday* (*Luna nueva*) (1940)
- *Amarcord* (1973)
- *Jules et Jim* (1962)
- *Oktyabr* (*October*) (1927)
- *Othello* (1951)
- *The general* (1926)

Bibliografía / Bibliografía

Izenburua Título	Egilea Autor	Argitaletxea, urtea Editorial, año
Cien años de cine japonés	Donald Richie	Jaguar, 2004
Cine Japonés	Stuart Galbraith IV	Taschen, 2009
El estilo trascendental en el cine: Ozu, Bresson, Dreyer	Paul Schrader	JC, 1999
Yasujiro Ozú : elogio del silencio	Antonio Santos.	Cátedra, 2005
La casa de Ozu	Marta Peris Eugenio.	Asociación Shangrila Textos Aparte, 2019
El estilo trascendental en el cine: Ozu, Bresson, Dreyer	Paul Schrader	Ediciones JC, 2019
Ozu: multitudes	Pablo García Canga	Athenaica, 2020

Izenburua Título	Egilea Autor	Argitaletxea, urtea Editorial, año
La poética de lo cotidiano: escritos sobre cine	Yasujiro Ozu	Gallo Nero, 2023
La política de los autores: entrevistas[a] Robert Bresson, Luis Buñuel, Howard Hawks, Alfred Hitchcock, Fritz Lang, Jean Renoir	Robert Bresson	Paidós, 2003
Notas sobre el cinematógrafo	Robert Bresson	Árdora, 2007
De la música, los ruidos y el silencio en el cine de Robert Bresson	Marcos Azzam Gómez	Amarante, 2020
Conversaciones con Billy Wilder	Cameron Crowe	Alianza, 2022
Billy Wilder, reportero: reportajes desde el Berlín de Weimar y la Viena de entreguerras	edición de Noah Isenberg	Laertes, 2022
Sunset Boulevard	Billy Wilder, Charles Brackett, D. M. Marshman Jr.	Plot, 2004
Perdición	Billy Wikder	Plot, 2004
El apartamento	Billy Wilder, I. A. L. Diamond.	Plot, 1998
Con faldas y a lo loco	Billy Wilder, I. A. L. Diamond.	Plot, 1998
Furia española: vida, obra, opiniones y milagros de Luis García Berlanga (1921-2010), cineasta	José Luis Castro de Paz y Santos Zunzunegui (dirs.)	Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales, 2021
Tamaño natural: el erotismo berlanguiano	Guillermina Royo Villanova	Renacimiento, 2021
Berlanga: vida y cine de un creador irreverente	Miguel Ángel Villena.	Tusquets, 2021
Luis Buñuel	coordinado por Jesús Angulo y Joxean Fernández.	Filmoteca Vasca, 2020
El banquete de los genios: un homenaje a Luis Buñuel	Manuel Hidalgo	Península, 2019
El libro de mis sueños	Federico Fellini	Blume, 2022
Los espíritus de Fellini	José Luis de Vilallonga	Elba, 2020
Fellini en Roma	Tyto Alba	Astiberri, 2017
Federico Fellini	coordinado por Jesús Angulo, Joxean Fernández	Filmoteca Vasca, 2011
Las películas de mi vida	François Truffaut	Cult Books, 2021
François Truffaut: el niño que amaba el cine	Luca Tortolini	Libre Albedrío, 2022
El acorazado Potemkin = Bronienocets Potiomkine: Sergei M. Eisenstein	estudio crítico de Barthélémy Amengual	Paidós, 1999
El genio de Eisenstein	Paulino Viota	Athenaica, 2023
El Greco	Sergei Eisenstein	Sans Soleil, 2019
S. M. Eisenstein: lo que solicita ser escrito	Jesús Gonzalez Requena	Cátedra, 2006
Memorias inmorales: autobiografía	Eisenstein	Torres de Papel, 2014
El cine de Eisenstein: teoría y práctica	David Bordwell	Paidós, 1999
El libro de Ciudadano Kane	Pauline Kael	Cult Books, 2020
Orson Welles en acción	Jean-Pierre Berthomé, François Thomas; traducción de Jone Barandiarán Fernández	Akal, 2007
Las cosas que hemos visto: Welles y Falstaff	Esteve Rimbau	Luces de Gálibo, 2015
Mis almuerzos con Orson Welles: conversaciones entre Henry Jaglom y Orson Welles	edición de Peter Biskind	Anagrama, 2015
Ciudadano Welles	Orson Welles	Capitán Swing, 2015
Slapstick	Buster Keaton	Plot, 2006
Cine cómico mudo: un caso poco hablado: (Chaplin, Keaton y otros reyes del gag)	Lluís Bonet Mojica	T&B, 2003
El gag visual: de Buster Keaton a Super Mario	Manuel Garin	Cátedra, 2014

INFORMAZIO ERABILGARRIA / INFORMACIÓN ÚTIL

LABURDURAK

A: Aktoreak
G: Gidoia
Z: Zuzendaritza

JBGA: Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz azpigitulaturik

JB: Jatorrizko bertsioa

ABREVIATURAS

R: Reparto
G: Guion
D: Dirección

VOSE: Versión original con subtítulos en castellano

VO: Versión original

SARRERAK

5€ (4€ AZ Txartelarekin)
Zinemako txarteldegian eta golem.es

Asteartea, +65 urte: 2€
(leihatilan bakarrik salgai)

ENTRADAS

5€ (4€ Con Tarjeta AZ)
Taquillas del cine y golem.es

Martes, + 65 años: 2€
(venta solo en taquilla)

- Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea.
- Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke. Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldeztu aurretik azkunazentroa.eus-en jakinarazita.
- Programa hau etxera eramatea gomendatzen dizugu.

- Abrimos la sala 15 minutos antes de la proyección de la película. Te recomendamos que acudas con unos minutos de antelación.
- La programación de Zinemateka está sujeta a cambios de última hora. En caso de fuerza mayor, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao se reserva el derecho a cancelar, modificar o aplazar las actividades programadas, previa comunicación pública en azkunazentroa.eus
- Te recomendamos que te lleves a casa este programa.

info@azkunazentroa.eus

Plaza Arriquirar, 4 -48010 Bilbao

944 014 014

azkunazentroa.eus



LG-DL: BI-129-2016

AZKUNA ZENTROA,

ZINEMAREN LEKUA BILBON EL LUGAR DEL CINE EN BILBAO

Film Sozialak

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia / Festival Internacional de Cine Invisible

Zinemakumeak gara!

Emakumeek zuzendutako zinema erakustaldia / Muestra de cine dirigido por mujeres

ZINEBI

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak
Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao

Zinexit

Giza Eskubideen Zinema Erakustaldia / Muestra de Cine y Derechos Humanos

FANT

Bilboko Zinemaldia Fantastikoa / Festival de Cine Fantástico de Bilbao

Zinemateka

Programazio egonkorra zinema klasiko eta garaikideko zikloekin
Programación estable con ciclos de cine clásico y contemporáneo

Zinemaldia

Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan / Donostia Zinemaldia en Azkuna Zentroa

Zinegoak

Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia
Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas Gaylesbitrans de Bilbao

Basque Dok Festival

Bilboko Irudi Garaikidearen Nazioarteko Jaialdia
Festival internacional de Imagen Contemporánea de Bilbao

Cines Golem Alhóndiga

Zinemarekiko konpromisoa urte osoan / Compromiso con el cine todo el año

